



## **AIPAMEN DUALA JASOTZEKO EBALUAZIO-PROTOKOLOA**

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen.

2022ko martxoaren 2ko REACUren bileran onartutakoa

## AIPAMEN DUALA GRADUKO ETA MASTERREKO UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZETAN

Protokolo honek aipamen duala ebaluatzeko oinarrizko egitura ezartzen du, hain zuzen ere Unibertsitateen Kalitaterako Agentzien Espainiako Sarean (REACUn) bildutako unibertsitateen kalitaterako agentziek erabakitakoa.

Aipamen duala irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenaren —aurrerantzean, 822/2021 EDa—, 22. artikulua arautzen du. Aipamen dualaren erregulazio hori, 822/2021 EDaren VI. kapituluan dago jasota («*Curriculum-egitura espezifikoa eta irakaskuntza-berrikuntzako egiturak unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan*»). Zehazki, hauxe ezartzen du 822/2021 EDaren 22. artikulua: «*Graduko eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialek Aipamen Duala jaso ahal izango dute. Aipamen Duala unibertsitate-zentroan eta erakunde laguntzaile batean - enpresa bat, erakunde sozial edo sindikal bat, instituzio bat edo administrazio bat izan ahal izango dena- modu osagarrian garatzen den prestakuntza-proiektu komun bat da, unibertsitate-zentroaren gainbegiratze eta lidergo hezitzailearen pean, eta ikaslearen trebakuntza egokia helburu duena, heziketa integrala hobetzeko eta enplegarritasuna hobetzeko*».

822/2021 EDaren 13.3 artikulua ezartzen duenez, graduko ikasketa ofizialak osatu egin daitezke zenbait aipamenerekin, eta, horien bidez, «*curriculum* edo *ibilbide* espezifikoa sendotu egiten da, titulu horretako ikasketa-plana eratzen duten eta graduaren heziketa-proiektu orokorra osatzen duten ezagutza, gaitasun eta trebetasun guztien heziketa-alderdi jakin baten inguruan». Izan ere, 22. artikuluan argi eta garbi dago ezarrita aukera dagoela aipamen duala unibertsitate-gradu eta -master ofizialetan ere ezartzeko. Gainera, bestelako izaera bat ere ematen zaio —aipamen dualak ez du eskatzen curriculum areagotzea, ez eta prestakuntza-ibilbide espezifikoa bat egin behar izatea ere—. Horrenbestez, aipamen duala ez da parekatu behar 13.3 artikulua horretan araututako gradu-tituluen ohiko aipamenekin, baizik eta unibertsitate-zentroen eta entitate laguntzaileen artean modu osagarrian garatzen diren heziketa-proiektu erkideei balioa ematera bideratutako curriculum-egitura espezifikoa batekin, halaxe ondorioztatzen baita 21. eta 22. artikulua batera irakurrita, eta halaxe ondorioztatzen da, orobat, azken hori 822/2021 EDaren VI. kapituluan txertatuta egotetik ere. Beraz, unibertsitateek beren autonomia baliatuz ikasketa-planetan txertatu ahal izango duten curriculum-egitura espezifikoa bati lotutako aintzatespena izango da, Tituluaren Gehigarri Europarrean islatuko dena, 822/2021 EDak curriculum-egitura espezifikoa etarako eta irakaskuntza-berrikuntzako egituretarako 21. artikuluan ezarritakoaren antzera. Edonola ere, horretarako protokolo honek garatzen duen berariazko prozedura bete beharko da edo dagokion ebaluazio-agentziak aldeko egiaztapen- edo aldaketa-txostena eman beharko du. Aldeko ebaluazio horren ondorioz —eta 22. artikulua laugarren atalean zehazten duenez—, «*kanpo-ebaluazioko organo eskudunaren txostenak egiaztatuko du aipamen duala jaso dezaketela ezarritako baldintzak betetzen dituzten tituluak*».

REACUren *graduko eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko ebaluazio-protokoloak ezartzen duenez*, «*irakaskuntzen plangintzan txertatzen diren curriculum-egitura espezifikoen helburuek gizartearen eskaera jakin batzuei erantzun behar diete, bai eta gizartearen etengabeko eraldaketari eta ezagutza zientifiko, teknologiko eta humanistiko berrien premiari ere, eta koherenteak izan behar dute tituluaren heziketa-xedeekin*». Unibertsitate-zentroan eta entitate laguntzaile batean modu osagarrian garatzen diren heziketa-proiektu erkideak, aipamen duala jasotzeko modukoak, gizartearen mota horretako eskaerei erantzutera bideratuta egon ohi dira; izan ere, lagungarriak izan daitezke, besteak beste, ikasleen gaikuntza egokia lortzeko eta ikaslearen integrazio profesionala eta enplegarritasun kualifikatua eta unibertsitate-heziketa integrala hobetzeko.

Aipamen dualaren eskaera tituluaren ikasketa-planaren memorian jaso beharko da egiaztapen-prozedura orokorraren barruan, REACUren egiaztapenerako ebaluazio-protokoloan zehaztutakoari jarraikiz, eta, egiaztatutako titulazioen kasuan, ikasketa-planen funtsezko aldaketarako prozeduraren arabera eskatu beharko da, halaxe jasotzen baita REACUren *Graduko eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko ebaluazio-protokoloan*. Zehazki, memoriaren 1.12 azpiatalean jaso beharko da aipamen dualari buruzko erreferentzia (hain zuzen ere, «Curriculum-egitura espezifikoak eta haien helburuen justifikazioa» izenekoan).

## **EBALUATZEKO DIMENTSIOAK, IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK**

### **1. Baterako heziketa-proiektua diseinatzea**

- Heziketa-proiektuaren helburuek argi eta garbi zehaztuta egon behar dute, eta bat etorri behar dute tituluaren helburuekin eta justifikazioarekin. Ikasleak egoki gaitzera bideratu behar dira, haien prestakuntza integrala eta enplegarritasuna hobetzeko.
- Duen interes akademiko, zientifiko, profesional eta sozialak justifikatuko du, besteak beste, heziketa-proiektua.
- Heziketa-proiektua batera gauzatu beharko da unibertsitate-zentroan eta entitate laguntzaile batean —hau da, enpresa batean, erakunde sozial edo sindikal batean edota instituzio edo administrazio batean—.
- Unibertsitate-zentroak gainbegiratu du heziketa-proiektua, eta huraxe arduratuko da heziketa zuzentzeaz.
- Unibertsitateak zehaztuko du heziketa-proiekturako zenbat plaza egongo diren maila bakoitzean. Kopuru horrek koherentea izan beharko du unibertsitatean zein entitatean dauden ikaskuntzarako baliabide materialekin, langile akademikoekin, irakaskuntzari laguntzeko pertsonalarekin eta entitateetako tutoreekin. Heziketa-proiektuaren proposamenak ez du inola ere ekarriko administrazio eskudunak aipamen duala jasotzeko eskaera egin aurretik egiaztatutako plaza-kopurua handitzea.
- Ikasketa-planean jasotako kredituetatik, ehuneko hau gauzatuko da entitate laguntzailean (enpresan, erakundean, instituzioan edo administrazioan):
  - 1.- Kredituen ehuneko 20 eta 40 artean, graduko tituluetan.
  - 2.- Kredituen ehuneko 25 eta 50 artean, unibertsitate-masterreko tituluetan.

Ehuneko horien barruan sartuko da gradu- edo master-amaierako lana.

- Unibertsitatean eta entitate laguntzailean modu dualean egindako heziketa-jarduera txandakatu egingo da ordaindutako lan-jarduera batekin, indarrean dagoen legerian araututako kontratuaren bidez<sup>1</sup>.
- Heziketa-proiektuan definituko dira titulua osatzen duten irakasgaiak, jakintzagaiak edo moduluak. Era berean, ikasleak unibertsitate-zentroan ematen duen denboran landuriko ikasketa-emaitzekin koordinatuta eta osaturik definituko dira lortu nahi diren ikasketa-emaitzak (ikasleek lortu beharreko ezagutzak edo edukiak, gaitasunak eta trebetasunak edo abileziak), betiere aintzakotzat harturik ikasketa-planaren eta heziketa-proiektuaren (hau da, kasuan kasuko graduaren zein masterraren) bakartasuna.
- Une oro bermatu beharko da heziketa-jarduera unibertsitate-zentroan eta entitate laguntzailean (enpresan, erakundeetan, instituzioan edo administrazioan) uztartzeko aukera. Ildo horretatik, heziketa-proiektuaren plangintzak koherentea izan beharko du diseinatutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren emaitzekin, eta, bereziki, ikasleari aurreikusten zaion dedikazioarekin.

## 2. Ikasleak sartzeko irizpideak

- Unibertsitateak beharrezko mekanismoak izan beharko ditu, ikasleei argi eta garbi azaltzeko heziketa-proiektura sartzeko bideak eta onartzeko eta heziketa-proiektua uzteko prozedurak.
- Heziketa-programa hautatzeko irizpideek publikoak eta akademikoak izan behar dute, ez dute sortu behar nahasmendurik (hau da, argi eta garbi deskribatu behar dira) eta koherenteak izan behar dute programaren helburuekin.
- Dagokionean, heziketa-proiektuak ikasleen mugikortasunaren antolamendu egokia jaso behar du, proiektuaren ikasketa-emaitzekin bat datorren kreditu-aintzatespena ere barne harturik.
- Heziketa-proiektua egitea aukeratu duen ikasleak, egoki baderitzo, proiektua utzi eta ibilbide orokorrera itzuli ahal izango du, betiere ez baditu gainditu proiektu horretan zehaztutako kredituen erdiak.

## 3. Entitateekin lankidetzan aritzeko irizpideak

- Unibertsitateak eta entitate laguntzaileak —ikasleak hautatuko du, lan-kontratu bidez prestakuntzaren parte bat bertan egiteko— hezkuntza-lankidetzako esparru-hitzarmen bat sinatu beharko dute aldeez aurretik. Bertan, bi aldeek sinatu beharreko berariazko hitzarmena jasoko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz.

---

<sup>1</sup> Protokolo hau onetsi den egunean, ikas-ekineko heziketa-kontratuak izango da, eta helburu hau izango du: bateragarri egitea ordaindutako lan-jarduera eta, besteak beste, unibertsitate-ikasketen alorreko heziketa-prozesuak, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren, 11.2 artikulua garatzen duenez. Kontuan hartu behar da, halaber, artikulua hori aldatu egin zela, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua onetsi ondotik —2021-12-30eko BOEn argitaratu zen eta 2022-03-30ean hartuko du indarra—.

- Berariazko hitzarmen horretan, heziketa-proiektua zehaztuko da, eta jasorik geratuko dira, orobat, proiektua sinatzen duten aldean betebeharrak, tutoretza- eta gainbegiratze-mekanismoak, ebaluazio-sistemak eta heziketa-proiektu erkidea behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako baldintzak.

#### **4. Langile akademikoak, irakaskuntzan laguntzeko langileak eta entitateko tutoreak**

- Irakasleek, irakaskuntzan laguntzeko langileek eta entitateko tutoreek egokiak izan beharko dute, eta bermatu beharko dute lortzen direla heziketa-proiektuaren helburuak eta ikasketa-emaizak.
- Ikasle bakoitzak unibertsitateak izendatutako tutore bat eta entitate laguntzaileak izendaturiko beste bat izango ditu, gutxienez.
- Ikaslearen tutoreek batera gainbegiratu beharko dute heziketa-proiektuaren garapena, betiere unibertsitateko tutorearen gidaritzapean.

#### **5. Unibertsitatean eta entitatean ikasteko baliabideak**

- Heziketa-proiektuan aurreikusita dauden jarduerak garatzeko, unibertsitateak eta entitate laguntzaileak nahikoa baliabide material, azpiegitura eta zerbitzu izan behar dituzte (eta egokiak, gainera), aurreikusitako ikasketa-emaizak ziurtatzekotan.